## MUNGIAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, SEXU-ASKAPENAREN NAZIOARTEKO EGUNA DALA ETA

Bagilaren 28an, aurten bere, eskubideak eta bizikidetza aldarrikatzen doguz euskal gizartearen aurrean, aniztasunetik abiatuta. 1969ko bagilaren 28an New Yorkeko Stonewallen altxamendua gertatu zanetik hona -iaz 51. urteurrena ospatu genduan-, egun hori, urtero, lorpen guztiak aldarrikatzeko eta ikusarazteko egun bihurtu da; eta, era beran, data horrek, ezinbestean, hondino lortzeko dogun guztia agertzeko data bere izan behar dau.

Mungiako Udalak eskerrak emon gura deutsez sexu-askapenaren aldeko borrokaren alde bizitza eta ahaleginak eman dituen eta gaur egun gizartea sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta eraldatzeko lana antolatzen eta egiten jarraitzen daben lagun guztiei. Era berean, hemen berton eta gure mugetatik kanpo isilean irauten daben pertsona guztiak aitortu eta ahaldundu gura doguz. Modu berezian ganera aurten, 2021ean, ohikotik kanpoko egoerea bizitea tokau jakun honetan.

Mungian argi daukagu honetan ezin garala lasaitu, adi egon behar dogula, sexu- eta genero-aniztasunaren kontrako sektore eta alderdi politiko jakin batzuen diskurtsoak eta planteamenduak areagotu egin diralako, eta horrek ondorio zuzenak dakarskuzalako: batetik, trans kolektiboaren eskubideak aitortzearen aurkako oposizino zuzena; eta, bestetik, erasoen gorakadea, oin dala egun gitxi geure inguruko herrietan ikusi ahal izan dogun moduan. Horregaitik, LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko borroka agirian iminten jarraitu behar dogu.

Horregaitik beharrezkoa da LGTBI pertsonen bizitzak eta eskubideak babestuko dituen lege-esparruak izatea.

Lesbiko, trans, bi-en ikusgarritasun-egunak, trans despatologizazioaren kontrakoak, LGTBIfobiaren kontrakoak... bat eginda, izatearen eta desioaren harrotasunaren aldarrikapena izatera datoz gaur, bakotxa bere erara, danak bat eta danak desbadin.

Hori dala eta, Mungiako Udaletik egun hau sexu-askapenaren bidez lortzen goazen aurrerapen guztiak ospatzeko aprobetxatzen animetan zaituegu, eta ahaztu barik gizarte osoaren ardurea dala zaintza eta adi egotea, horren alde borrokan jarraitzea eta pertsona guztiak aske bizi ahal izan daitezala eta euren nahia aske adierazo ahal izan daiela bermatzea.

Era berean, konpromisoa hartzen dogu Mungiako Berdintasunerako Planaren urteko kudeaketa-planean neurri zehatzak sartzen jarraitzeko, gure herriari pertsona guztien benetako bardintasunerako bidean aurrera egiten laguntzeko, LGTBI pertsonen egoerearen eta beharren diagnostikoa eginda (pandemiaren

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE MUNGIA CON MOTIVO DE LA CELEBRACIÓN DEL DÍA INTERNACIONAL DE LA LIBERACIÓN SEXUAL

Este 28 de junio, un año más, reivindicamos ante la sociedad vasca los derechos y la convivencia desde la diversidad. Desde que el 28 de junio de 1969 -celebrábamos el año pasado el 51 aniversario - ocurriera la revuelta de Stonewall en Nueva York, esta fecha se ha convertido, cada año, en un día para reivindicar y visibilizar todos los logros alcanzados, e ineludiblemente, debe ser también la fecha en la ponemos de relieve todo aquello que aún nos queda por conseguir.

El Ayuntamiento de Mungia desea agradecer a todas las personas que han entregado su vida y esfuerzos a favor de la lucha por la liberación sexual y que, a día de hoy, siguen organizándose y llevando a cabo una labor de sensibilización, concienciación y transformación social. Quiere también reconocer y empoderar a todas las personas que resisten en silencio aquí y más allá de nuestras fronteras. Y quiere hacerlo muy especialmente este 2021 en que nos toca vivir una situación tan fuera de lo común.

En Mungia tenemos claro que no se puede bajar la guardia ante el aumento de discursos y planteamientos por parte de determinados sectores y partidos políticos claramente contrarios a la diversidad sexual y de género, lo cual tiene consecuencias directas: una oposición directa al reconocimiento de los derechos del colectivo trans, por una parte; y por otra, el aumento de agresiones, como hace pocos días hemos podido comprobar en localidades de nuestro entorno. Por ello sigue siendo necesario seguir visibilizando la lucha por los derechos del colectivo LGTBI.

Es por ello que es necesaria la existencia de marcos legales que protejan las vidas y los derechos de las personas LGTBI.

Los días de la visibilidad lésbica, trans, bi, contra la despatologización trans, en contra de la LGTBIfobia... se fusionan hoy en la reivindicación del orgullo de ser y desear, cada cual, a su manera, todos y todas diversas.

Es por todo esto que, desde el Ayuntamiento de Mungia, animamos a aprovechar este día para celebrar todos los avances que vamos consiguiendo por la liberación sexual, sin olvidar que es un trabajo de todo el conjunto de la sociedad no bajar la guardia, seguir luchando por ello, y garantizar que todas las personas puedan vivir y expresarse en libertad.

Así mismo, nos comprometemos a seguir incluyendo en el Plan de gestión anual del Plan para la Igualdad de Mungia, medidas concretas que ayuden a avanzar a nuestro pueblo en su camino hacia la igualdad efectiva de todas las personas, empezando por un diagnóstico de la situación y necesidades de las personas LGTBI (teniendo presentes las consecuencias y efectos de la

eragin eta ondorioak kontuan hartuta) eta, horren arabera, beharrizanoi erantzuteko neurri zehatzak diseinatuta.

Beraz, animatu egiten zaituegu herritarrok sentsibilizazino- eta aldarrikapen-ekitaldiakaz bat egin daizuen eta foro publiko, komunikabide eta sare sozialetatik gaur aniztasunaren aldeko borrokarako eguna dala agertu daizuen.

pandemia), y posterior diseño de medidas concretas que den respuesta a las mismas.

Animamos a la población, pues, a que se sume a los actos de sensibilización y reivindicación que, desde los foros públicos, medios de comunicación y redes sociales, hagan visible que hoy es un día de lucha por la diversidad.